



ONDARROAKO UDALA

KIROL BATZORDEAREN BILERAKO AKTA

Bilera-zenbakia: 2019/1
Eguna: 2019-04-10
Ordua: 18:30
Tokia: Udaletxeko 2. Pisuko batzar gela

Bertaratuak

Unai Barrenetxea, kirol batzordeburua
Koldo Azpiazu, Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkaria
Jose Ramon Osa Etxaburu, idazkaria

Bertaratu ez direnak

E.A.J.ko ordezkaria
Arrigorri Itsas Arrantza Elkarteko ordezkaria
Artibai Judo Taldeko ordezkaria
Asoc. Inmigrantes Senegaleses de Ondarroako ordezkaria
Asoc, Senegaleses Pueblao de Bassoul en Euskadiko ordezkaria
Aurrera Geuria Txirrindu Taldeko ordezkaria
Aurrera K.E. / C.D. Aurrerako ordezkaria
Ondarru Igeri Taldeko ordezkaria
Tontorramendi Aurrera Mendi Taldeko ordezkaria
Egusentia Koop. E.ko ordezkaria
Koaxi Triatloi Taldeko ordezkaria
Eskilantxarri elkarteko ordezkaria
Orkatzen Peñako ordezkaria
Ondarroako Atletismo klubeko ordezkaria
Ondarroako Pala Taldeko ordezkaria
Ondarroako Urpeko Elkarteko ordezkaria
Udal kiroldegiko zuzendaria

Aztergaiak

1. 2018ko irailaren 19ko aktaren onespena, hala badagokio.
2. 2019ko aurrekontua.
3. 2016ko Kirol Gala.
4. Balorazio batzordearen eraketa 2018ko dirulaguntza banaketa egiteko.
5. Eskaerak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2018ko irailaren 19ko aktaren onespena, hala badagokio.

Aipatu akta onartu egin da aho batez.

2. 2019ko aurrekontua.

Kiroleko II. kapituluko gastuen aurrekontua jasotzen duen orria banatu du idazkariak (I. Eraskina).



ONDARROAKO UDALA

Horrez gain, esan du 55.000,00€ko diru kopurua aurrakusi dela dirulaguntza deialdia egiteko norgehiagoka erregimenean, kirol ekintzak antolatzeko 2019an.

3. 2016ko Kirol Gala.

Kirol batzordeburuak esan du maiatzaren 10ean izango dela 2016ko kirol sariak emateko Kirol Gala. Galako gastuei aurre egiteko dirurik ez dela egon aurreko urteetan esan du eta horregatik berandutu egin dela ekitaldia.

4. Balorazio batzordearen eraketa 2018ko dirulaguntza banaketa egiteko.

Idazkariak azaldu du, dirulaguntza deialdian jasota dagoenaren arabera, ondorengo partaideak izan behar dituela balorazio batzordeak:

- Presidentea: dagokion arloko batzordeburua.
- Idazkaria: arloko teknikaria.
- Kideak: Osoko bilkurako osaketaren arabeko partaidetza eta elkarteetako ordezkari bi, nahi izanez gero.

Hori dela eta galdetu du ea inor badagoen prest batzordearen parte hartzeko.

Arraun Elkarteko ordezkariak esan du bere taldeak parte hartuko duela.

5. Eskaerak eta galderak

Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkariak gogoratu du Ondarroa Arraun Elkarteari buruzko lana egin zela orain dela urte batzuk Udalak ateratzen duen Kirol Bekaren bitartez, baina lan hori ez denez argitaratu, gutxienez Udal web orrian ipintzeko eskaera egin du.

Ondoren batzarra amaitutzat eman du batzordeburuak.

Jose Ramon Osa Etxaburu
Idazkaria

O.e.
Unai Barrenetxea Gurrutxaga
Kirol batzordeburua

Kirola - 2019ko aurrekontua

I. Eraskiwa

EKINTZA	KONTZEPTUA	BEZEROA	GASTUA	AURREKON
2016ko Kirol Gala	Plakak saridunentzako			750,00
2016ko Kirol Gala	Luntxa			600,00
2016ko Kirol Gala	Batzuk			100,00
2016ko Kirol Gala	Sarituen ikusentzunezkoa prestatzea			1035,76
2017 Kirol beka				2.100,00
Bolei txapelketa	Boleiko baloiak erostea			100,00
Traineren estropada	WC bi alokatzea			330,00
Ondarroa-Lekeitio lasterketa	Publizitate kontratua	Tximista Atletismo Elkartea		700,00
Lea-Artibaiko Rallya	Etapari Ondarroan hastearren	Etxebarriko KPR Racing ... Elk.		1.500,00
Jaietako esku pilota partiduak	Emakumezkoen partiduak			1.000,00
Egia-Iriondo memoriala	Kartelaren diseinua + 30 kartel A-3 + kartel 1 A-2			150,00
Egia-Iriondo memoriala	Kartel banaketa			100,00
Egia-Iriondo memoriala	Janari ezberdinak partaideei oparitzeko			250,00
Egia-Iriondo memoriala	Txapelak eta trofeoak			700,00
Egia-Iriondo memoriala	Istripuen aseguruia			350,00
Erosketak	Slacine erosketa			120,00
Gurutze Gorriaren zerbitzuak	Anbulantzia eta lantxa zerbitzuak urtean zehar			10023,85
Skate pistaren inaugurazioa	Erakustaldiko partaideentzako luntxa	Nagore Caceres eta Jarobit Cruz C	292,05	300